



ADMINISTRAZIO-KLAUSULA PARTIKULARREN AGIRIAREN KARATULA, EAKO UDAL-MUGARTEAN SAKABANATUTA DAUDEN NATXITUA ETA ANGELUTXU NUKLEOEN SANEAMENDURAKO KONEXIO-KOLEKTOREAREN OBRA KONTRATATZEKO. ESPEDIENTE-ZK.: 3159.

Erregulazio harmonizatuko kontratua	☐ BAI ☒ EZ
Espedientea izapidetzea	☒ Ohikoa, ☐ Urgentea, ☐ Larrialdia, ☐ Aurreratua
Mota	☒ Irekia ☐ Ireki sinplifikatua (SPKLren 159.1 art.) ☐ Ireki super sinplifikatua (SPKLren 159.6 art.)

A.- BOTERE ADJUDIKATZAILEA

1.- Botere adjudikatzailea:	Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia/ Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
2.- Kontratazio-organoa:	☒ Zuzendaritza Batzordea ☐ Presidentea ☐ Gerentea
3.- Kontratuaren arduraduna:	Francisco Javier Durán Ruiz de Gaona
4.- Kontratazio Zuzendariordetzaren harremanetarako datuak:	www.contratacion@consorciodeaguas.eus Administrazio/teknika arloko kontsulta: 944 873 100
5.- Kontratatzailearen profila:	https://www.consorciodeaguas.eus/eu/ https://www.contratacion.euskadi.eus/hasiera/

B.- KONTRATUAREN XEDEA

1.-Kontratuaren xedea: Eako udal-mugarTEan sakabanatuta dauden Natxitua eta Angelutxu nukleo en saneamendurako konexio-kolektorearen obra. 2.-Bete beharreko premiak: kontratuaren xedea kolektore bat eraikitzea da, Angelutxu nukleoa eta Eako hirigunea konektatuko dituen a, Beheko Errekaren ibarrean (udalerriko nukleo nagusiaren mende baldean) zehar kokatutako baserrietako isurketak biltzeko. Obra ezinbestean exekutatu behar da Natxitua eta Angelutxu auzoetako efluenteak Eako HUAN behar bezala tratatzeko. 3.- Loteka banatzea: ☐ Bai ☒ Ez Loteka ez banatzearen justifikazioa: Kontratua loteka banatuta exekutatzek oztopatu egingo luke kontratua behar bezala exekutatzek ikuspegi tekniko tik, eta, halaber, arriskuan jarriko luke egin beharreko lan guztiak koordinazioz egitea, eta, ondorioz, erasan handiagoo izango luke zonako abonatu etan, hornidura-mozketa gehiagoo izango bailirateke. Loteka banatzeak oztopatu egingo luke, halaber, ingurumen-kontrola behar bezala kudeatzea, hondakinak kudeatzea eta obretako segurtasun- eta osasun-arauak aplikatzea lanetan.
4.- CPV: 45232410-9 Saneamendu-obrak.
5.- Aldaeren edo alternatiben onargarritasuna: ☐ BAI ☒ EZ
6.- Izaera juridikoa ☒ Administratiboa ☐ Pribatua

C.- KONTRATUAREN PREZIOA

1.- Lizitazio-aurrekontua	MILIOI BAT LAUREHUN ETA LAUROGEITA
----------------------------------	---



C.- KONTRATUAREN PREZIOA	
(BEZa gabe)	HAMAICA MILA HIRUREHUN ETA BERROGEITA HAMAR EURO ETA HAMABI ZENTIMO (1.491.350,12 €).
2.-Kontratuaren balio zenbatetsia: 1.491.350,12 euro. Loteak: ☐ BAI ☒ EZ	
3.- Prezioa zehazteko sistema: ☐ Honenbesteko prezioa ☒ Prezio unitarioak	
4.- Urteko ordainketak eta aurrekontu-kontsignazioa: Kontratuaren aurrekontuko urteko ordainketak eta kontratuaren gastuaren aurrekontu-aplikazioa: 459.40 601.23 - 2025. urtea: 300.000,00 €. - 2026. urtea: 1.191.350,12 €.	
5.- Prezioen berrikuspena: ☐ BAI ☒ EZ	
6.- Finantzaketa kanpoko funtsekin: ☐ BAI ☒ EZ	
7.- Ordaintzeko modua: Arrunta, hileko ziurtagiri bidez.	
8.- Konturako ordainketak: Ez da aplikagarria	

D.- KONTRATUAREN EPEA
1.- Iraupen osoa: HAMAR (10) HILABETE
2.- Epe partzialak. ☐ BAI ☒ EZ
3.- Luzapena ☐ BAI ☒ EZ
4.- Bermealdia: URTEBETE (1)
5.- Kontratua exekutatze tokia: Eako udal-mugartea
6.- Lanak zatika jaso daitezke ☐ BAI ☒ EZ.

E.- BERMEAK
☒ Behin betiko bermea: % 5 Zenbatekoa: Adjudikazioa
☐ Berme osagarria: Zenbatekoa:

F.- KAUDIMEN EKONOMIKOA EDO FINANTZARIOA
Ez dagokio.

G.- GAITASUN TEKNIKOA ETA PROFESIONALA
Ez dagokio.
BALIABIDEEN ADSKRIPZIOA:
Obraburu bat izan beharko du; gutxienez 10 urteko esperientzia behar du, azken 10 urteotan antzeko lanetan parte hartu duela egiaztatzeaz gain.



ENPRESA-SAILKAPENA

ENPRESA-SAILKAPENA ☒ Bai ☐ Ez

Eskatu beharreko taldea, azpitaldea eta kategoria: E taldea, 1. azpitaldea, 4. kategoria.

H.- LIZITATZAILEEK AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

1.- 1. gutun-azala: Erantzukizunpeko adierazpena.

2.- 2. gutun-azala: Balio-judizioen mende dauden irizpideei buruzko dokumentazioa.

3.- 3. gutun-azala: Automatikoki kuantifikatzeko irizpideei buruzko dokumentazioa.

BALIO-JUDIZIOEN MENDE DAUDEN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

a) Memoria teknikoa eta exekuzio-metodologia.

a.1) Proiektuaren analisia.

Proiektuaren analisi bat barne hartuko du, bai eta proiektuaren dokumentazioari buruzko ondorioen zerrenda bat eratu ere, horri buruzko ezagutza-maila adierazteko.

Garapenean eragiten duten kanpoko baldintzatzaileen azterketa ere balioetsiko da, baita lizitatzaileraren iritziz kontraturako garrantzitsua den beste edozein inguruabar ere.

Hirugarrenei eragindako kaltea minimizatzeko azterketa baloratuko da, bai eta errekak gertu egotea ere.

a.2) Metodologia orokorra.

Obra exekutzeko metodologia orokorraren azterketa bat barne hartuko du, aurreikusitako jarduketa nagusi bakoitzean aztertuko duena.

Baloratu egingo da beharrezko eraikuntza-prozesuen eta teknologien azterketa, jarduketa bakoitza gauzatzean gainditu beharreko zailtasunak identifikatzeaz gainera: kokapena, ezarpena, instalazio osagarriak, metaketak, obrarako sarbideak, etab. Horretarako proposatutako metodoak eta bitartekoak ere zehaztu egingo dira.

b) Obrarako jarritako bitartekoak - Planifikazio orokorra.

b.1) Obrarako jarritako bitartekoak.

Obrarako proposatutako antolamenduaren organigrama eta deskribapen funtzionala aurkeztuko dira, obrari esleituko zaion ekipoa eta haren dedikazioa zehaztuta eta ekiporekin kualifikazioa eta esperientzia adierazita.

Obra proposatutako baliabideekin exekutzeko duen benetako gaitasuna frogatzea baloratuko da.

Proposatutako ekipoen zerrenda xehatzea baloratu egingo da, horien kopurua, ezaugarriak, errendimendua eta dimentsionamendua zehazteaz gainera eskulanari eta makineriari dagokionez, bai eta horien jabetza eta obran erabiltzeko konpromisoak ere, ondo funtsatuta betiere.

ABEEen kasuan, argi eta garbi zehaztu beharko da eginkizunen banaketa enpresa parte-hartzaileen artean. Lizitatzailerak lanen zati bat hirugarrenekin itundu beharra aurreikusten badu, horien izena, erreferentziak eta aurrekontu osoan izango duten ehunekoa adierazi beharko ditu, konpromiso-gutunez gainera, bai eta enpresa-profila edo sailkapena ere.

b.2) Planifikazio orokorra

H.- LIZITATZAILEEK AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

Kronograma bat eta lan-programa bat izango ditu, eta ataza, jarduera eta denbora-mugarrien kateamendu-ordena logiko bat eduki beharko du. Obrarako jarritako ekipo eta bitartekoen arabera behar bezala justifikatuta egongo da, proposatutako errendimenduekiko koherentziari eustez gainera.

Koherentzia baloratuko da obretarako egindako planteamendu orokorrean, obren kokapena eta obrak exekutatzeke proposatutako bitartekoak kontuan hartuta.

Ondo egituratuta egongo da, epe errealistekin, eta obraren funtsezko etapa guztiekin.

Hauek ere baloratuko dira:

- Xehetasun-maila jardueren definizioan eta koherentzia horien sekuentzian hainbat obra-lan exekutatzeari dagokionez.
- Ekipoei esleitutako errendimenduen definizioa eta zehaztutako jardueren gutxi gorabeherako iraupen errearen justifikazioa.
- Gantten diagramaren medioz irudikatutako obra-planaren zehaztapena, bai eta bide kritikoaren eta lasaiera-sorkuntzaren azterketarena ere.

c) Ingurumen-irizpideak.

- Obrak dirauen bitartean garatu beharreko prozedura- eta baliabide-proposamenak, baldin eta obraren ezaugarri eta berezitasunetara egokituta badaude, jomuga lanak exekutatzean ingurumen-inpaktuen prebentzioa eta minimizazioa bermatzea izanik.
- Obrako hondakin guztien % 70 baino gehiago balorizatzea bermatzen duten proposamenak. Horretarako, Hondakinak Kudeatzeko Planaren aurrerapen gisa, taula bat jaso beharko da, obran sortuko diren hondakinak (aurreikuspenen arabera), horien kopuruak eta aurreikusitako tratamendu-eragiketa (balorizazioa/ezabaketa) adierazita.

d) Irizpide sozialak

- Kontratua exekutatzen duten langileei berdintasun-esparruan prestakuntza, informazioa eta sentsibilizazio-kanpainak eskaintzeko konpromisoagatik.

Gehieneko orri kopuru (alde batetik) onargarria 30 izango da, ezaugarri hauekin:

- DIN-A4 tamaina.
- Letra mota eta letren gutxieneko tamaina: ARIAL, 10 puntu.
- Gutxieneko lerroarte: 1,5 puntu.
- Gutxieneko goiko eta azpiko marjina: 2,5 cm.
- Gutxieneko ezkerreko eta eskuineko marjina: 2 cm.
- Gehieneko orri kopurua zenbatzeko, aurkibidea 30 orri horien barruan kontabilizatuko da. Ez dira zenbatuko azala eta kontrazala.

Apartatu bakoitzerako orrialdeen banaketa lizitatzailleak aukeratuko du, eta ordena logiko bati jarraikiz zenbakitu beharko dira. Salbuespen gisa, DIN A1 eta DIN A3 orriak sartu ahalko dira, aurkezteko formatu horiek behar dituzten dokumentuetarako. Orrien guztizko zenbaketaren ondoreetarako, ez dira kontuan hartuko ez azalak ez aurkibideak, ez eta obrari esleitutako taldearen kualifikazioa eta esperientzia egiaztatzen duen dokumentazioa ere (informazio hori eranskin batean erantsi beharko da, bereiz). 30 orrialde baino gehiago aurkezten badira, balorazio teknikoan lehendabiziko 30 orrialdeak baino ez dira kontuan izango.



AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEKO IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

Proposamen ekonomikoa, lizitatzailleak edo haren ordezkariak sinatua, I. eranskin gisa bildutako ereduaren arabera idatzia ezinbestean, eskaintako prezioan zerga guztiak barne hartuta daudela, BEZa izan ezik.

Proposamen ekonomikoa honako hauekin osatuko da:

Eskaintako prezio unitarioen zerrenda.

- Proiektua osatzen duten unitate guztien exekuzio materialaren prezio unitarioen zerrenda, letraz eta zenbakiz idatzita.

Unitatearen zuzeneko kostuari % 7 gehituz lortuko dira prezio horiek, zeharkako kostu gisa.

Enpresa lehiatzaileak konpromisoa hartuko du, adjudikaziodun izanez gero, Prezioen 2. Taula eratzeko, bere eskaintzan agertzen den prezio unitarioen zerrendan oinarrituta, dokumentu horren helburuetarako egokia den egitura batekin. Azkenik, obren zuzendaritzari aurkeztuko zaio, Zuinketaren Egiaztapenaren Akta sinatu eta lehen hilabetea amaitu baino lehen.

- Aurkeztutako prezio unitarioak kalkulatzeko erabilitako eskulanen, makinen eta materialen oinarritzko prezio unitarioen zerrenda.

Eskaintako kontratuaren aurrekontua

- Exekuzio materialerako aurrekontua, enpresa lehiatzaileak eskaintako prezio unitarioak lizitazio-proiektuaren neurketei aplikatzean oinarrituta egina. Aurrekontu hori PRESTO programan gauzatu beharko da, eta paperezko edizioaz gain, euskarri magnetikoko bertsio bat ere aurkeztu beharko da. Aipatutako programak ez izanez gero, BC3 formatuan aurkeztea ere onargarria izango da.
- Obra-exekuziorako aurrekontua, exekuzio materialerako aurrekontuari «Gastu Orokorrak eta Onura Industrialak» kontzeptua (% 19) aplikatzearen ondoriozkoa.

I.- ESKAINTZAK AURKEZTEKO TOKIA ETA EPEA

- 1.- Eskaintzak aurkezteko epea: Kontratatzaillearen profilean adierazitakoa
 - 2.- Eskaintzak aurkezteko tokia (AKPAren 13. klausulan ezarritakoa ez beste bat bada soilik):
 - 3.- Eskaintzak elektronikoki aurkeztu behar dira ☒ BAI ☐ EZ
- Eskaintza elektronikoki aurkezteko plataforma elektronikoen helbidea:
<https://contratacion.consorciodeaguas.eus/site/3?language=eu>

J.- KONTRATAZIO-MAHAIA/ADITUEN BATZORDEA

☒ Kontratazio-mahaia

Lehendakaria/Ordezkoa:
Ekaitz Mentsaka Corral.

Kideak (Titularrak/Ordezkoa):
Mikel Magunazelaia Pinaga.
Xabier Orue Moro.
Itziar Zarate Urrutia.
Gerardo Latorre Pedret.
Jose Manuel Pereda Renobales.

Idazkaria (Titularra/Ordezkoa):



J.- KONTRATAZIO-MAHAIA/ADITUEN BATZORDEA

Gerardo Latorre Pedret.

K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

1.- Adjudikazio-irizpideak:

Baloratu beharreko alderdi gisa lehiaketa adjudikatzeko oinarri izan behar duten irizpideak honako hauek dira:

AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEKO IRIZPIDEAK: 50 PUNTU

Irizpide honetan 50 puntu emango dira gehienez.

Eskaintza ekonomikoak eskaintza bakoitzaren baja-ehunekoearekiko (Bi) proportzioan baloratuko dira honako balio hauek esleituko dituzten formula matematikoen bidez:

Bmax	50 puntu
(Bmax + BBB) / 2	48 puntu
BBB	47 puntu
0,8 x BBB	46 puntu
0,6 x BBB	44 puntu
Lizitazio-aurrekontua	0 puntu

Puntu hauetako balioak aurretik zehaztutako K_1 koefizienteaz biderkatuko dira.

Non:

- Bi: Eskaintzaren baja-ehunekoa; lizitazio-aurrekontuaren eta eskaintzaren zenbatekoaren arteko aldea zati lizitazio-aurrekontua eginda ateratzen den emaitza, ehunekotan adierazita.
- Bmax: Gehieneko bajaren ehunekoa, eskaintzarik ekonomikoenari dagokiona
- BBB: Batez besteko bajaren ehunekoa, lizitatzailerik bakoitzaren baja-ehunekoen batezbesteko aritmetikoaren emaitza

Gainerako eskaintzen puntuazioa aterako da aurretik zehaztutako puntu-banaketa linealki interpolatuta. Hori horrela, Bi baja bakoitzari esleitutako P_i puntuazioa honako hau da:

Baldin eta $0 < Bi \leq 0,6 \times BBB$

$$P_i = \frac{Bi}{0,6 \times BBB} \times 44$$

Baldin eta $0,6 \times BBB < Bi \leq 0,8 \times BBB$

$$P_i = 44 + \frac{(Bi - 0,6 \times BBB)}{0,2 \times BBB} \times 2$$

Baldin eta $0,8 \times BBB < Bi \leq BBB$

K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

$$P_i = 46 + \frac{(B_i - 0,8 \times BBB)}{0,2 \times BBB}$$

Baldin eta $BBB < B_i \leq (BBB + B_{max}) / 2$

$$P_i = 47 + \frac{(B_i - BBB)}{(B_{max} - BBB)} \times 2$$

Baldin eta $(BBB + B_{max}) / 2 < B_i \leq B_{max}$

$$P_i = 48 + \frac{(2 \times B_i - BBB - B_{max})}{(B_{max} - BBB)} \times 2$$

Formula hauen bidez lortuta P_i puntuazioaren emaitza guztiak aurretik zehaztutako K_1 koefizienteaz biderkatuko dira.

BALIO-JUDIZIOEN MENDE DAUDEN IRIZPIDEAK: 50 PUNTU

Alderdi teknikoaren irizpideak eta haztapena honako hauek izango dira:

- Memoria teknikoa eta exekuzio-metodologia: 20 puntu.
 - a.1) Proiektuaren analisisa (10 puntu).
 - a.2) Metodologia orokorra (10 puntu).
- Obrarako jarritako bitartekoak eta planifikazio orokorra: 25 puntu.
 - a.1) Obrarako jarritako bitartekoak (15 puntu).
 - b.2) Planifikazio orokorra (10 puntu).
- Ingurumen-irizpideak: 3 puntu.
 - c.1) Obrak dirauen bitartean garatu beharreko prozedura- eta baliabide-proposamenak, baldin eta obraren ezaugarri eta berezitasunetara egokituta badaude, jomuga lanak exekutatzean ingurumen-inpaktuen prebentzioa eta minimizazioa bermatzea izanik. (2 puntu).
 - c.2) Obrako hondakin guztien % 70 baino gehiago balorizatzea bermatzen duten proposamenak. Horretarako, Hondakinak Kudeatzeko Planaren aurrerapen gisa, taula bat jaso beharko da, obran sortuko diren hondakinak (aurreikuspenen arabera), horien kopuruak eta aurreikusitako tratamendu-eragiketa (balorizazioa/ezabaketa) adierazita. (1 puntu).



K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

- Irizpide sozialak: 2 puntu

2.- Berdinketa hausteko irizpideak:

Eskaintza baten baino gehiagoren artean berdinketa jazoz gero, behean adierazitako irizpide sozialak aplikatuko dira berdinketa ebazteko, adierazitako hurrenkeran, eskaintzak aurkezteko epea amaitzean lizitatzailerak duen egoera kontuan izanik:

- a) Enpresetako plantilletatik desgaitasuna duten edo gizarte-bazterketako egoeran dauden langileen ehuneko handiena duena; berdinketa gertatuz gero, plantillan langile desgaitu gehien duena edo plantillan inklusio-neurrien bidez langile gehien duena.
- b) Plantillan aldi baterako kontratuen ehuneko txikiena duen enpresa.
- c) Plantillan emakume enplegatuen ehuneko handiena duen enpresa.
- d) Zozketa, aurreko irizpideak aplikatuta berdinketa ebatzi ez bada.

3.- Eskaintza anormalki txikitat jotzeko irizpideak:

Eskaintza anormalki txikitat joko da honako egoera hauetako batean badago:

- Baldin eta, lizitatzailerak bakarrik egonik, lizitazioaren oinarritzko aurrekontua baino portzentajezko 25 unitate txikiagoa bada.
- Bi lizitatzailerak egonik, beste eskaintza baino portzentajezko 20 unitate txikiagoa dena.
- Hiru lizitatzailerak egonik, aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoa baino portzentajezko 10 unitate txikiagoak direnak. Nolanahi ere, zenbatekorik handieneko eskaintza ez da kontuan hartuko batezbestekoa zenbatzeko, baldin eta batezbesteko bakarrik baino portzentajezko 10 unitate handiagoa bada, ausarkeria-atalase berria finkatzeko baino ez, eta ezarritako sailkapen-hurrenkeran inolako eraginik izan gabe. Dena den, neurrigabetzat joko da portzentajezko 25 unitatetik gorako baja.
- Lau lizitatzailerak edo gehiago badaude, aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoa baino portzentajezko 10 unitate txikiagoak direnak. Hala ere, haietako eskaintza batzuk batezbestekoa baino portzentajezko 10 unitate baino handiagoak badira, egoera horretan ez dauden eskaintzekin bakarrik egingo da batezbestekoa, ausarkeria-atalase berria finkatzeko baino ez, eta ezarritako sailkapen-hurrenkeran inolako eraginik izan gabe. Nolanahi ere, gainerako eskaintzen kopurua hirutik beherakoa bada, batezbesteko berria zenbatekorik txikieneko hiru eskaintzen gainean kalkulatu da.

Talde bereko enpresek eskaintzak aurkezten badituzte, eskaintzarik txikiena baino ez da kontuan hartuko anormaltasun-presuntzioan dauden eskaintzak identifikatzeko araubidea aplikatzeko, alde batera utzita eskaintza bakarrik edo taldetik kanpoko enpresa batekin edo batzuekin batera, aldi baterako elkarturik, aurkeztu duten.

- 4.- Lizitatzailerari, hautespen-prozesuan jarraitzeko, eskatutako gutxieneko puntuazio-atalasea:** Baztertzeko arrazoia izango da eskaintzaren balorazio teknikoan **25 puntu** gutxienez ez lortzea.

L.- KONTRATUA EXEKUTATZEKO KONDIZIO BEREZIAK

PTPAn zehaztutakoak.

M.- ZIGOR ZEHATZAK

PTPAn adierazitako kasuak eta ekintzak.

N.- ADJUDIKAZIODUNAK AURKEZTU BEHARREKO ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA

Arrisku profesionalengatik erantzukizuneko aseguruia dagoelako egiaztatzea.
Administrazio-klausula partikularren agiriaren gehigarria. (VIII. eranskina)



Ñ.- KONTRATUA ALDATZEA

Ez dagokio.

O.- AZPIKONTRATATZEKO AUKERA

BAI

P.- SUBROGAZIOA

EZ DAGOKIO

Q.- ERREKURTSO BEREZIA

☐ BAI ☒ EZ

R.- BETEBEHARRAK KONTRATUA EXEKUTATU BITARTEAN

Obren zuzendaritza:

Partzuergoaren barnean eskumena duten zerbitzuek kontrolatu eta ikuskatuko dituzte lanak, Obra Zuzendaritzaren bitartez, zeinak ikuskatu, egiaztatu eta zaindu egingo baitu kontratatutako obra behar bezala gauzatzen dela, Administrazio Klausula Orokorren Agiriko 4. eta 24. klausuletan xedatutakoari jarraituz.

Obraren seinaleak eta kartelak:

Enpresa adjudikaziodunak nahitaez osatu behar ditu Proiektuaren Laneko Segurtasun eta Osasun Azterlanean adierazitako elementuak, honako hauek adierazteko behar diren seinaleei dagokienez: obrarako sarbidea, zirkulazioa lanetarako eremuan, lanak exekutatzearen ondoriozko balizko arrisku-puntuak, bai eremu horretan bertan, bai haren mugetan eta inguruetan, eta Administrazio Klausula Orokorren Agiriko 23. klausulan aipatzen diren aginduak bete behar ditu.

Baimenak eta lizentziak

Enpresa adjudikaziodunak udal-baimen guztiak kudeatu beharko ditu, obrarako udal-lizentzia izan ezik, aldarmioak, pasabideak, hesiak jartzeko, hartuneetarako galtzadak irekitzeko, eta abarretarako, eta haren kontura izango dira, oso-osorik, nola tasak, hala horien kudeaketak dakartzan gastuak. Udalak obretarako udal-lizentzia gisa fakturatutako zenbatekoa soilik geratzen da aurreko gastutik kanpo, hala badagokio.

Era berean, bere gain hartuko ditu beste erakunde batzuen –hala nola Foru Aldundiaren– baimenak izapidetzeari dagozkion gastu guztiak –adibidez, abalak–, bere eskumeneko arloetan jazotako gurutzetak eta/edo jarduketak direla-eta.

KONTRATISTAREN ORDEZKARIA

Enpresa adjudikaziodunak jarduteko eta/edo enpresaren ordezkari izateko gaitasun nahikoa duen ordezkari bat atxiki beharko dio obra honi, kontratuaren harremanei eragiten dien guztian.

Ordezkarik horrek eta enpresaren adjudikaziodunaren agindupean dauden langileek ez dute Partzuergoarekin harreman juridikorik izango, ez eta lan-harremanik edo bestelakorik ere, ez kontratua indarrean den bitartean, ez kontratuaren amaieran.